

B

BARREN

TOKIKOM

ELGOIBARKO



HERRI

ESKOLA

29 urte Herri Eskolari emanda

Julian Gorroño

Cristina Garcia. Estetika eta Terapia Naturalak

Orain dela hamabi urte hasi nintzen estetika munduan lanean, eta orain dela urtebete, Elgoibarren nire negozio propioa zabaltzea erabaki nuen. Estetika, nutrizioa, kiromasajea eta kinesiologia aplikatua titulatu naiz. Tratamenduak egiteko produktu natural eta ekologikoak erabiltzen ditut, osasunari kalterik egiten ez diotenak eta emaitza hobek ematen dituztenak.

► Zein tratamendu eskaintzen dituzu?

Depilazio mota desberdinak ditugu batetik. Argizari epelarekin nahiz beroarekin eta diodo laserra erabiliz depilatzen dut. Bestalde, erlaxazio-masajeak, gorputza modelatzeko tratamenduak, zelulitisaren kontrakoak, aurpegirako oxigenoterapia, gemoterapia edota mesoterapia ere egiten ditut.

► Nola lortzen duzu merkaturako eskaintza berritzaileen eskaintzea?

Merkaturako azken tratamenduak erabiliz, eta produktu kosmetiko berrien aplikazioa ahalbidetzen duen etengabeko formazioari esker. Kongresuetara, azoketara edota ikastaroetara joaten naiz, eta egunean nago.

► Zein da gehien eskatzen duten tratamendua?

Nire bezeroen artean oxigenoterapiak estimazio handia dauka. Gorputza modelatzeko tratamendu pertsonalizatuak ere eskatzen dizkirate, hori delako nire espezialitatea.

► Zure lanbidetik zer gustatzen zaizu gehien?

Bezeroekin lortzen dudako gertuko harremana, eta emaitza onek ematen duten satisfazioa.

► Zertan desberdintzen zara beste zentroetatik?

Hasieratik bideratu nuen nire enpresa kosmetika natural eta ekologikora, animalietan probatu gabekora. Bidezko merkataritza eta ingurumena errespetatzen dituen kosmetika da.



ZURE LARRUAZALA ZAINTEKO TRATAMENDUA


Hidratazio sakona
Multibitaminak
Zahartzearen kontrakoa
Aknea...

aurpegi tratamendua oxigenoterapiarekin
mesoterapia birtuala
oinarri aktibo pertsonalizatuak

3x2 BONOIA

Cristina Garcia
Estetika eta Terapia Naturalak





Janire Elordi

Benoa, iritsi da beste behin ordenagailuko teklak astinduz gure gogoetak askatze-ko unea, Maita.

Eta buelta asko eman ondoren, edo hobe esanda, gai asko buruan bueltaka izan ondoren, dramatiko jarriko naiz gaurkoan. Izan ere, azkenaldiko berriekin beldurra sentitu dut. Jadanik etorkizuneko ziurgabetasunari beldur begiekin begira jarri naizela uste dut.

Duela gutxi, kazetari batek zera aitortu zuen irratian: berak utzi ziola egunero albistegiak ikusi eta egunkariak irakurtzeari, aspaldion beti berri eta mezu negatiboz kutsatuak zeudelako. Berak zioen burua ezer konpontzen laguntzen ez digun informazio andanaz betetzeaz gain, sentimendu negatibo eta perspektiba ilunez bakarrik janzen gaituztela, eta horren kontra egiteko, bere intereseko ziren berrien bila hasten zuela eguna orain berak. Horrela, aurrera errazago egiten zuela eta ausartago jokatzeko zuela ziurtatu zuen. Bada, gu denon bizi-estiloaren ardatz den sistema ekonomikoa gaixo dago, oso gaixo, eta apurka-apurka inguratzen duten beste sistemak ere kutsatzen ari da. Aberastasun iturri omen zen sistemak krak egin du, eta jakin ere ez dakigu non dagoen horren sorburua: bankuak, espekulazioa, globalizazioa, politika kaxkarrak, interes pribatuak, lapurretak, zigorgabetasuna ...

“Baikortasun printza beharrea nago, eta gogoraraziko didazu arrazoiren bat?”

Momentuz, gehiengoarentzako ondorioak ezagutzen ditugu bakarrik: kaleratzeekin nabarmentzen diren langabezi edo zorpetze jasan gaitz egoerak, desberdintasunak nabarmentzera zuzentzen ari diren osasun sistema zein hezkuntza elitista, eta azken muturrean, jangela sozialen “arrakasta”, pobrezia eta gosearen erakusleio bihurtuta.

Esperantza edo baikortasun printza beharrea nago, eta gogoraraziko didazu arrazoiren bat? Agian neuk ere berriak entzuteari uztea dut onena!



Maitane Mendikute

Ilun eta goibel samar zatoz gaurkoan, Jani! Ez da harritzekoa horrelako momentuak izatea, zeuk esan bezala, aspaldian daukagun albiste txarren bonbardaketa honenkin!

Baina nola ba oraindik hain ezkor? Montoro ministroak orain gutxi esandakoaren arabera, argi printzak ikusten hasia da Espainia, krisiaren amaiera aurreikusiz. Bitartean, gaiarekin lotuta, Euskal Herrian bestelako albisteak izan ditugu azken asteotan, Fagor Etxetresnen behin-behineko itxiera, kasu. Golpe dezentea, krisiaren amaiera etortzeko zenean.

“Goza dezagun eguneroko bizitzaz.

Den-dena ez baita dirua. Eta eskerrak!”

Ez dakit, Jani, noiz etorriko den argia, ezta noizbait buelta emango ote diogun ere honi guztiari. Inoiz baino gehiago, txo-xongilo garenaren sentsazioa dut. Eta pentsatzen dut gure gaitetik daudenez ez dakitela nola mugitu gure sokak, edota ezjakinarena egiten dutela. Eta noraezean gabiltza, zorabiatuta, denok. Gero eta soka motzagoez, noski.

Neuk ere sinetsi nahi dut, horrenbeste denboraren ostean, pixkanaka egoera hobetuz joango dela, nahiz eta lehen bezain ondo agian ez garen sekula biziko. Dena den, gutako askoren burukomin handiena Iphone 5a edo Samsung Galaxy 4a erostea bada... ez dut uste oraindik guztiz lur jota gaudenik.

Eta alferrikako gogoeta hauek egin ostean, eta sekula lehen baino aberatsagoak izango ez garela onartu ostean, goza dezagun eguneroko bizitzaz, Jani! Ostiral iluntzetako lagunarteko barre algarez, udazkeneko haizeaz, igande goizeko mendi itzuliez, Ospasko sutondoko goxotasunaz.... Bizitza honetan, den-dena ez baita-eta dirua. Eta eskerrak!

AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310

HIDRODEPURAZIOA
Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta arguzuzkoa) - Mikropigmentazioa

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara
Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi
Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel
Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane
Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA


elgoibarko
bizitza



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Auzokonpostari buruzko hitzaldia

Konposta hondakin organikoetatik eratorritako ongaria da; zaborra dena lehengai bihurtzen du teknika horrek, hondakinak inon pilatu edo erre beharrik izan gabe. Ortu, lorategi edo basoen lurrentzako ez dago konposta bezain oinarri aberasgarriagorik. Badirudi aspaldian asko ari direla zabaltzen autokonpost eta auzokonpostak hainbat herrietan, baita gure bailaran ere. Gipuzkoan 12.000 pertsona dira jada konposta egiten dutenak; abiadura handian zabaltzen doa. Auzokonpostak baditu hainbat abantaila: auzolana bultzatzen du, %40 inguru diren hondakin organikoak autogestioaren bidez kudeatzen ditu (ondorioz lana eta energia aurreztuz), zaborraren inguruko kontzientzia zabaltzen laguntzen du, gauzak ongi eginez gero, zaborren tasetan deskontuak egin daitezke, etab.

Hori horrela, Elgoibar Zero Zaborretik auzokonpost esperientzia bat bultzatu nahian gabiltza Basarte eta San Rokerako hasieran, etorkizunearan beste auzo batzuetara zabaltzeko asmoarekin. Parte hartzera animatzen zaituztegu. Gurekin harremanetan jarri duenak hona idaztea besterik ez du: elgoibarzz@googlegroups.com

Guzti horren harira, azaroaren 6an, asteazkenean, 19:00etan, hitzaldi bat emango dugu konpostaren eta auzokonpostaren inguruan Kultur Etxean: nola egiten den, zer material behar diren, zer esperientzia dauden, non ari den zabaltzen, etab. Informatuta egotera animatzen zaituztegu. Ongi-etorriak izango zarete hitzaldira! Hor ikusiko garelakotan, agur t'erdia.

Elgoibar Zero Zabor

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Deba ibaia oso zikina egoten da: “Ez dakigu zein den arazoa, baina duela bi urtetik Deba ibaiko ura zikin-zikin dator gauetan, Altzola inguruan. Uste dugu depuradoratik etortzen dela zikinkeria. Ez dakit noren ardura den, baina norbaitek kontu hartu beharko luke”.



Urruzuno auzoan ez dute belarra mozten: “Albitxurira igotzeko bidea oso lagata dago. Bide bazterrek sasiz beteta daude, eta ondorioz, autoak sarri kontrako norabideko errailera pasatu behar izaten dute. Espaloia ere leku askotan belarrez eta sasiz estalita dago, eta eskertuko genuke ingurune hori txukuntzea. Eskerrik asko”.



Giza Eskubideen plazan ez dago zakarrontzirik: “Giza Eskubideen plazako haur parkean ez dago zakarrontzirik. Ume asko biltzen da parke horretan, eta sarri behar izaten dugu zakarrontzia. Tabernako sarreran badago zakarrontzi bat, baina parkean jolasean dabilzan umeen gurasoentzako ez da batere eskura geratzen. Eskertuko genuke zakarrontzi bat jartzea”.



San Rokeko barandak berritu dituzte: “San Roke auzoan baranda berriak jarri dituzte, eta ingurua txukundu egin dute. Itxura polita hartu du ingurune horrek”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarzarra.com 943 744 112

estetikaalire

FOTO DEPILAZIOA

ETORRI LAGUN BATEKIN ETA GOZA EZAZUE BIKO %40-EKO BEHERAPENAZI!

EMAITZA ONAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera:
09:30- 20:00

Eguerditan ez dugu itxen

Larunbata:
10:00 - 13:00

Upaiz zaharra, 1 behea
Tel.: 943 531 636 - Elgoibar

AGURTZANE c.b.

ileapaindegia

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

FOTODEPILAZIOA

- ➔ Zango erdiak.....69 €/saioko
- ➔ Zango osoak + iztaiak.....119 €/saioko
- ➔ Iztaiak.....29 €/saioko
- ➔ Besapeak.....29 €/saioko
- ➔ Ezpain gainekoa + kokotsa.....39 €/saioko
- ➔ Alba lerroa.....19 €/saioko
- ➔ Bizkarra+sorbaldia+besapeak.....99 €/saioko

2013ko azaroa eta abendurako eskaintza

Elgoibar Erotikoa antolatu dute, bigarren urtez

27 tabernek hartuko dute parte pintxo-pote erotikoa

Elgoibar Erotikoa egitasmoa antolatu dute herriko hainbat tabernarik, bigarren urtez, eta aurten ere, erotismoa, ardoa, umorea eta janaria izango dira egitarauko osagai nagusiak. Pintxo-pote erotikoa, piropo lehiaketa, kontzertuak, streaptease-ak, ipuin kontalariak, tupper sex saioak eta dastatze erromantikoak izango dira besteak beste, azaroaren 7tik 9ra bitartean.

Pintxo potean 27 tabernak hartuko dute parte, pintxo erotiko banarekin, eta horrez gain, Maalan jarriko duten karpan beste pintxo bat dastatzeko aukera egongo da. Pintxoari laguntzeko, ardoa edo garagardoa egongo dira aukeran. Piropo lehiaketari dagokionean, euskarazko edo gaztelerazko piropoak izan daitezke. Tabernetan egongo dira eskuorriak eta piropoa entregatzeko kutxak. Piropo onenaren jabeak afari bat izango du opari.



EGITARAUA

7, EGUENA

19:00etatik aurrera, pintxo-potea

21:30 'Un amor de juventud' film erotikoa, Herriko Antzokian

21:00 Tupper-sex, Ametsan

8, BARIXAKUA

19:00etatik aurrera, pintxo-potea

21:30 Tupper sex saioa, Gabi jatetxean.

23:00 Kontzertua, Maalan

9, ZAPATUA

18:00 Igurtzi tailerra, Viento Surren. Aurrez izena eman behar da.

23:00 Kontzertua Maalan: Codigo Habana. Kari-beko musika sentsuala.

Gabin eta Txarridunan menu erotikoa. Txarriduna-ko afariak tupper-sex eta streapteasea ere izango ditu.

00:00 Streptease, Tantikan (gizonezkoa)

00:30 Streaptease, Salenton (emakumea)

01:00 inguruan, streaptease mixtoa, Gabazen

Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako saskiak salduko dituzte, ekoizleei eurei eta euskalgintzari laguntzeko

Lazko esperientzian oinarrituta, udazkeneko kanpaina hasi du Errigorak, *Nafar Hegoaldeko uzta, euskarari puzka lelopean*. Nafarroa hegoaldeko produktuei Euskal Herriko plazan bidea emateko sortu zuten Errigora proiektua. Nafarroako hegoaldeko nekazaritza indartu asmoa du egitasmo honek, horretarako, propio eremu horretakoak diren produktuak salgai jarrita. Izan ere, merkatu globalizatuak konpetentzia baldintza gogorretara behartzen ditu bertako lehengaiekin lan egiten duten ekoizleak. Badu, baina, beste berezitasun bat proiektu honetik. Izan ere, euskarari bultzada emateko egitasmoa ere bada Errigora. Nafarroako eremu ez euskalduneko euskal-

gintzara bideratuko da Errigoraren bitartez batzen duten diruaren zati bat.

Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako saskiak salduko dituzte han eta hemen, 50 euroan. Era horretan, Nafarroan ekoizten dituzten produktuak ezagutarazi nahi dituzte. Merkatuan duen balio berean salduko dute produktu sorta hori, baina kasu honetan, batzen duten diruaren %25 euskalgintzara bideratuko dute. Aurten, batutako dirua hiru proiektu zehatzetara bideratuko da: egoera larrian dagoen Lodosako ikastolara, 'Euskaraz bizi eta ikasi' herri ekimenera eta Erriberako helduen euskalduntzea mantendu eta zabaltzera. Interesatuak izena eman behar dute oterra jasotzeko.



Elgoibarren, AEKren bulegoan eta Elgoibar Ikastolan eman daiteke izena.

Izena **Ainara Ladron**

Ainara Ladron eta beste lau gazte independentista epaitzen hasi ziren atzo Donostiako auzitegian. Fiskaltzak hamar hilabeteko kartzela zigorra eskatzen du haientzat, Segi "erakunde terrorista" izendatu izana salatzeak, 2007. urtean A-8 autobidean egindako protesta ekintza bategatik. Epaitu behar zituzten bost lagunetatik hiru, tartean Ainara Ladron, ez ziren epaiketara agertu eta Ateak Ireki webgunean eman zituzten ez agertzearen arrazoiak (www.ateakireki.com). Oztopoen gainetik aurrera egiteko bide bakarra "borroka" dela esan zuten hiru gazteek, eta "herri aktibaziora" deitu zuten. Edizio hau ixteko ordurako, bost gazteak atxilotzeko agindua emana zuen epai-leak.

Iluntzean, auzia salatzeak eta Ladroni eta gainerako auzipetuei elkarta-



suna agertzeko, ekitaldi berezia egin zuten Elgoibarren, Maalan.

Irudia **LOMCEri Ez!**



Espainiako Gobernuak onartu berri duen LOMCE Hezkuntza Legearen kontrako mobilizazioak deitu zituzten urriaren 24rako, eta Elgoibarren ere deialdi horrekin bat egin zuten hainbat ikastetxek. Herri Eskolako argazkia duzue behekoa.

Burgosera irteera, azaroaren 15ean

Burgosera irteera antolatu du Jubilatuen Egoitzak, azaroaren 15erako. 8:15ean irtengo da autobusa Kalegoen plazatik, eta iluntzean itzuliko dira. 11:00etan hamaiketako egingo dute, eta ondoren Burgos hiria bisitatuko dute. Eguerdian bazkaria izango dute, eta Gelatxo orkestrak giro-tuko du bazkalostea. Jubilatuen Egoitzako bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek 40 euro. Interesatuak Jubilatuen Egoitzan bertan eman behar dute izena.

'Erresilientzia eta gaitza' ikastaroaren lehen saioa, eguaztenean

Erresilientzia eta gaitza ikastaroa antolatu du Defibel fibromialgia eta astenia kronikodunen elkarteak azarorako, eta datorren eguaztenean izango da lehenengo saioa, 17:00etan, Kultur Etxean. Ana Perez Lizarraga psikologo eta psikoterapeutak gidatuko ditu saioak. Gainerako jardunaldiak azaroaren 14an, 20an eta 27an egingo dituzte.

Elkar ondo tratatzen ikasteko tailerra

Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak *Elkar ondo trata dezagun* ikastaroa antolatu du. Seme-alaben eta euren lagunen arteko harremanak izango dituzte aztergai, eta harreman horietan parte hartzen duten faktoreei buruz hausnartuko dute. 2 eta 12 urte bitarteko umeen gurasoentzako saioak izango dira. Lau tailer izango dira guztira: azaroaren 19an, 26an, abenduaren 3an eta 10ean; 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak azaroaren 8rako eman behar dute izena, ondorengo helbidera idatzita: kalamua@google-groups.com. Izen-abizenak eta seme-alabaren ikasturtea zehaztu behar da mezuan.

JULIAN GORROÑO

HERRI ESKOLAKO ESKOLAZAINA



“Jendearekin
izandako
tratuarekin
geratzen naiz”

29 urtez Herri Eskolako eskolazaina izan den Julian Gorroñok erretiroa hartu berri du. Urriaren 24an egin zituen 65 urte, eta egun horretan bertan egin zioten agurra eskolan. Ekitaldi xumea bezain hunkigarria izan zen. Ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoek egin zuten bat eskolako patioan, hainbat eta hainbat urtez euren zaindaria izan denari agur esateko. Esker oneko hitzak jaso zituen Gorroñok omenaldian, eta berak ere eskerrak eman zizkien han batu zirenei, hitz gutxiko gizona izan arren. Zalantzarik gabe, oroimenean gordetzeko eguna izan zen. Ekitaldiko bideoa ikusteko: www.elgoibarren.net.

29 urtez izan zara Herri Eskolako eskolazaina. Gogoratzan al zara nola iritsi zinen lanpostu horretara?

Eibarren jaiotakoa naiz ni, baina Elgoibarrra ezkondu nintzen. 26 urterekin ezkondu nintzen, eta ordutik, Elgoibarren bizi naiz. Herri Eskolan mantenerako langile bat behar zutela esan zidaten, eta halaxe hasi nintzen. Ordezkapenak egiten eman nituen urte batzuk, eta orduko eskolazaina jubilatua zenean, nik hartu nuen haren lekua.

“Sekulako aldaketa egon da, lehengo ikasleak askoz bihurriagoak ziren”

Zein da eskolazainaren zeregina?

Denetarik egitea tokatzen zaigu. Egunero eskolako atea zabaltzen eta ixten nituen, eta horrez gain, mantenu lanak ere neure arduraren zehar. Pertsianak konpondu, arbelak bere lekuan jarri, argiak aldatu... Denetik. Geletan zerbait falta zenean edo zerbait hondatzen zenean, nigana etortzen ziren.

Eskolan bertan bizi zinen zure familiarekin. Erraza da bizi eta lan toki berean egitea?

Lehen horrela izaten zen: eskolazainak ikastetxean bizi ziren. Gaur egun gauzak aldatu egin dira, eta figura hori desagertzen ari da. Kanean bizi ginen lehenengo, eta Herri Eskolan lanean hasi nintzenean joan ginen ikastetxera bizitzera. Ni gustura bizi izan naiz, eta etxeak ere bai. Hori bai, han ez dago astebururik edo jai egunik. Sarri etortzen dira hornitzaileak asteburuetan, eta haiek guztiak hartzen izaten zen nire lana. Gaur egun ate guztiak ixten nituen, baina adi egoten nintzen, lapurretarik egon ez zedin. Egia esan, bizitzeko leku isila eta lasaia da Herri Eskola. 29 urteotan ez da lapurretarik egon, eta ez dugu inolako arazorik izan. Behin saiatu ziren gaztetxo batzuk gaur egun eskolan sartzen, baina ez zuten ezer eraman.

Orain berriz jaitsiko gara gure lehengo etxera bizitzera, San Frantzisko kalera. Azken konponketak egiten ari gara.

Zure emazteak ere Herri Eskolan egiten du lan.

Bai. Jangelan egoten da, eta umeak autobusetan ondo sartzen direla zaintzen du. Berak ere lotura handia dauka ikastetxearekin. Ni baino gazteagoa denez, berak lanean jarraituko du. Orain kaletik joan beharko du lanera.

Eskolazain figura desagertzen ari dela aipatu duzu. Ordezkorik jarriko dizute?

Bai, eskolazain lanpostua beteko dute, baina ez da ikastetxean biziko. Mantenu lanak egingo ditu, bera izango da atezaina, baina bere etxean biziko da. Gaur egun ingurune hura zaintzeko beste sistemaren bat aurkitu beharko dute orain. Etxebizitza hori eskola handitzeko aprobetxatuko dute, ez dakit sukaldea edo jangela handitzeko erabiliko ez ote duten. Ikastetxea bera ere asko aldatu da, eta ez dauka orain dela 29 urte ezagutu nuenarekin zerikusirik. Oso polita dago orain eskola.

29 urtean jende asko ezagutzeko aukera izango zenuen. Igarri al duzu aldaketarik lehengo eta gaur egungo ikaslearen artean?

Sekulako aldaketa egon da, ikaragarria. Lehengo ikasleak askoz bihurriagoak ziren. Lehen, gainera, 14 urtera arte egoten ziren eskolan, eta norbaitek errepikatzen bazuen, 15 urterekin ere hantxe egoten zen. Nerabezaroan sartzen ziren, eta adin-tarte hori ez da erraza. Gaur egun 12 urterako joaten dira Institutura, oraindik umeak direla, beraz, askoz lasaiagoak dira. Gaur egun, bestalde, herrialde askotako ikasleak daude ikastetxean. Garai batean denak bertakoak ziren, eta atzerriarrak apenas ikusten ziren. Gaur egun horixe da errealitatea. Teknologia berriekin ere ikasle mota aldatu egin da. Gaur egun askok dauzkate sakelako telefonoak eta euren jarrera ez da lehengo ikasleena bezalakoa. Baina ni denekin konpondu izan naiz ondo, bai lehen eta baita orain ere.

Garai batean gazteleraz funtzionatzen zuen Herri Eskolak, eta gaur egun, euskaraz. Zer moduz moldatzen zara zu euskaraz?

Euskaraz dena ulertzen dut, eta umeekin hitz egiteko ere moldatzen naiz. Irakasle-

ekin eta gurasoekin, baina, nahiago dut gaztelaniz egitea.

Zer izan da lan honek eman dizun onena?

Jendearekin izan dudana harremana izan da onena, dudarik gabe. Hiru belaunalditako jendea ezagutu dut. Garai batean ikasle izan zirenak aitona-amona eginda daude, eta euren seme-alabak eta bilobak ere ezagutu ditut. Irakasleak ere pila bat ezagutu ditut, zuzendariak... Eskolan urte gehien egin dituenen izenak, eta lantalde ezberdinekin lan egitea tokatu zait. Baina denekin, primeran! Ez dut inorekin arazorik izan sekula. Ez neukan inorekin haserretzeko beharrik, eta ezta gogorik ere. Jendearekin lan egiteko izaera ona eduki behar da. Lagun asko eta onak eman dizkit lan honek. Egia esanda oroitzen onak gordeko ditut, ez daukat ezer txarrik esateko. Herri Eskolatik pasatu diren guztiei eskerrak eman behar dizkiet, urte hauetan guztietan eman didaten tratuatik.

“Herri Eskolatik pasatu diren guztiei eskerrak eman behar dizkiet, urte hauetan eman didaten tratuatik”

65 urte egin dituzu, eta erretiroa hartu berri duzu. Bizitzeko etapa berri batean sartuko zara. Zer egingo duzu aurrerantz?

Perretxikoak batzea asko gustatzen zait, eta ehizan ere ibiltzen naiz. Mendian ere izugarri gozatzen dut, beraz, ez dut uste aspertuko naizenik. Erretiroa hartzen duen jende askok ez du jakiten denbora non pasatu, eta hori ez da ona. Nik ez diot jubilazioari beldurrik.

Anekdotarik?

Hotza hasten zen sasoiari jantzi-zaina ere izaten nintzen! Zenbat txamarra, bufanda edota eskularru jaso ote ditudan! Umeei sarri ahazten zitzaizkien eta adi-adi egoten nintzen umei berokia hartzeko gogorazten.

Mikel Otero

FRACKING EZ ARABA! TALDEKO KIDEA

Fracking edo haustura hidraulikoa izeneko teknika zeresan handia ematen ari da azkenaldian, eta Elgoibarrera ere iritsi da oihartzuna. Ongarri zine-klubak *Promise Land* filma eskaini zuen atzo, eta *fracking*-aren gaia gizarteratzen laguntzeko, *fracking*, *apustu arriskutsua* izeneko hitzaldia antolatu du Okil Beltzak taldeak azaroaren 7rako (Kultur Etxean, 19:00etan). Hitzaldiaren aurrerapen gisa, hona hemen, BARRENEK hizlariari, Fracking Ez Araba taldeko kide Mikel Oterori, egindako elkarrizketa.

Ainara Argoitia

“‘Fracking’-a ez da teknika errentagarria epe luzera begira, ez da apustu garbia”



Zer esan nahi du ‘fracking’ hitzak, eta zertan datza teknika hori?

Estatu Batuetatik, hidrokarburoen mundutik, datorren hitza da *fracking*-a. Haustura hidraulikoa delako teknika izendatzeko asmatutako hitza da berez. Zer den hori? Bada, lurrazpiko haizetan pilotutako gasa ateratzeko erabiltzen duten teknika. Presio handiz, ura sartzen dute lurrazpira, hondarrez eta hainbat gehigarri kimikoz nahastuta, eta era horretan pitzadura batzuk egiten dituzte gasa duten hainbat harri geruzetan, gas hori erauzteko.

Irakurri dugu sakonera handian erabiltzen dutela teknika hori. Sakonera horietara iristeko egiten diren zulaketek arriskurik badute?

Ez da beti sakonera berdinean lan egiten, hidrokarburoak topa daitezkeelako lurrazalean zein lurrazpian, 6.000 bat metroko sakoneraraino. Egia da, baina, gero eta sakonera handiagora ari direla iristen teknika honen bidez. Arabara etorrita, adibidez, esaten digute 3.000-5.000 metro arteko sakoneraraino iritsi beharko lirakeela, harietatik gasa erauzteko. Hori, berez, bada aintzat hartzekoa, baina horri gehitu behar diogu hainbat gehigarri kimiko erabiltzen dituztela hidrokarburoak ateratzeko prozesu industrial horretan. Orain arte, uste da 600-800 produktu kimiko inguru erabili dituztela. Lekuaren arabera aukeratuko dituzte batzuk edo beste batzuk erabili, eta produktu gehiago edo gutxiago erabili. Euskal Herrian egin nahi dituzten proiektuetan hogeita hamar bat erabili ditzaketela kalkulaten da.

Produktu kimikoak kutsadurarekin lotuko dituzte askok, nahiz beharbada denak ez diren arriskutsuak izango. Zer dute kaltegarritik?

Azido kloridrikoa da erabiltzen dutenetako bat. Azido kloridrikoak ka-reharria edo harri gogorra zulatzea errazten du. Biozidak ere asko erabiltzen dira. Sakonera horretan ura erabiltzean sarri algak eta bes-telako izate bizidunak sortzen dira tuberia eta kanal luze horietan, eta biozida kanalak itxi ez daitezen erabiltzen dute, izate bizidun horiek deuseztatzeko, indargabetzeko edo neutralizatzeke. Funtzio ezberdinak dituzten gehigarri kimikoak erabiltzen dira, eta produktu kimikoez ari garenean beti ibili behar gara tentuz. Orain arte oso gutxi erabili da teknika hau Europan, baina Estatu Batuetan, Kanadan eta, dozena bat urteko esperientzia badute, eta ikusi dute gehigarri kimiko horiek hainbat kalte sortu dituztela. Kontuan izan behar da haustura hidraulikoa egiten denean produktu kimikoak oso portzen-

taje txikian erabiltzen diren arren [%1-5 artean], gasa erauzteko milioika litro ur erabiltzen dituztela, eta ondorioz, produktu kimiko kantitate handia erabiltzen dutela. Eta, jakina, oso erraza da horiek akuiferoetan filtratzea. Eta ez dira, gainera, produktu kimiko horiek baka-rik filtratzen; lurrazpitik erauzten den metanoa, sakonera handian dauden metal astunak, partikula erradioaktiboak... ere filtratzen dira sarri. *Fracking*-a asko erabiltzen ari diren lekuetan kutsadura kimikoa egon badago. Hori kimikari dagokionean, baina bestelako arazoak ere sortzen ditu *fracking*-ak.

Adibidez?

Hidrokarburo konbentzionalekin alderatuta, *fracking*-ak baditu berezko ezaugarri batzuk. Adibidez: gasa oso sakabanatuta dagoen harri geruzetan eragiten du *fracking*-ak. Horrek esan nahi du gasa dagoen harri geruzaraino bertaraino iritsi behar dela lehenengo, harria pitzatu eta gasa edo petrolio ateratzeko. Beraz, behartuta gaude ehunka eta milaka putzu egitera, hobi hori ondo ustiatzeko. Eta jakina, horrenbeste zulo egiteak beste kalte batzuk ere eragiten ditu: milioika eta milioika litro ur behar izatea, lurrazaleko lanetarako lur sail handiak okupatu behar izatea [pare bat hektarea okupatzen dute zulo bakar bat egiteko jartzen dituzten plataformek] eta okupatutako ehun edo milaka kilometro koadroko lur sailean kamioien, makina zultzaileen eta bestelako atzera-aurrerak etengabeak izatea, horrek berariaz dakarren kutsadura atmosferiko eta akustikoarekin.

Mugimendu sismikoak ere aipatu izan dira.

Zer dago egitik?

Bai, gertatu dira. Normala da, gainera. Kontuan izan behar dugu sakonera handian dauden geruzak pitzatzean desoreka geologikoak sortzen direla eta horrek lurrikarak eragin ditzakeela. Oso bertako adibidea badugu, gainera, Castor gas plataforman gertatu baita. Gasa injektatzen hasi dira, eta lurrikarak sortu dira. Teknika hau sarri erabiltzen bada eremu zabal batean arazo sismologikoak izateko arriskua handiagoa da.

Energia, ekologia eta ekonomia nahasten dira hemen ere. 'Gutxieneko segurtasuna bermatuz gero, nola egingo diogu uko garapen ekonomikoari?', galdetuko dute batzuek. Zer esango zenieke?

Batetik, ez dela segurua, eta bestetik, segurua balitz ere, *fracking*-aren onura ekonomikoak oso zalantzakoa liratekeela. Estatu Batuetatik iristen zaizkigun datuek hala erakusten dute behinik behin. Hidrokarburoko ateratzeko tekniken artean, *fracking*-a azkenburuko teknika da, azken apurrak biltzeko teknika, azken batean. Alde daudenez esango dizute honek lanpostuak sortuko dituela inguruan, baina guk ez dugu hori batere argi ikusten. Batetik, teknologia atzeritik datorrelako eta produktu kimikoen koktelak ere AEBetatik datozelako. Ekar dezaketen lana, beraz, ez da horrenbestekoa energia unitateaz ari bagara. Halako negozio aukera bat sortzen denean, gertatzen dena da izaten direla hainbat talde, norbanako edo enpresa interesa izan dezaketenak. Hau da: zulaketak egingo dituzten operadoreak atzeritarrak izango dira, hemen kultura petroliferorik ez dagoelako, baina gerta daiteke hondarra behar badute hemengo

harrobietan lan pixkat sartzeara edo altzairuzko tutuak behar badituzte, tutuak egiten dituzten hemengo enpresak interesatuak egotea. Dena den, guk garbi ikusten dugu energia berriztagarrietan lan aukera handiagoak daudela, besteak beste, haizea eta eguzkia agortezinak direlako. Garbi dago hau ez dela epe luzerako errentagarria den zerbait, eta ez dela, ezta ere, apustu garbia.

Gipuzkoan ere, bi eskaera egin dituzte teknika hau erabili ahal izateko, eta horietako batek, Sustrai delakoak, Elgoibar ere hartzen du. Nola dago kontu hori?

Fracking-aren inguruko plan guztiak Araban egitekoak izango balira bezala saldu zizkiguten Gran Enara proiektua ia osoa Araban kokatzen delako, baina boletin ofizialetera jotzen badugu, ikus dezakegu Kantauri arro osoan hainbat baimen eskaera aurkeztu dituztela. Gu Araban hasi ginen lanean, Arabako lurralde osoaren %88 hidrokarburo-ikerketarako baimenen eraginpean dagoelako. Gutxiak jakingo dute Bizkaiko lurraldearen %73 eta Gipuzkoakoaren %40 ere eraginpean daudela. Gipuzkoan, Shesa Hidrokarburoen Euskadiko Enpresa [euskal enpresa publikoa da] eta lehen Heyco zen enpresa amerikarrak sei urtez ikertzeko bi eskaera aurkeztu zituzten 2011n Jaurlaritzan eta baimenaren zain daude.

Jaurlaritzak momentuz ez du ezetz garbirik esan. Adierazpen politiko batzuk egon dira teknika bera zalantzan jarritz, baina debekurik ez dago. Nafarroan, bai. Nafarroan galarazi dute haustura hidraulikoa egitea. Zer espero duzue Jaurlaritzatik?

Protestak ugaritu direnetik, Ana Oregi Ingurumeneko sailburuak eta Arantxa Tapia Garapen Ekonomikorako sailburuak egin dituzte adierazpen batzuk, bai, esanez *fracking*-ak, gaur egun

egiten den moduan, ez duela bermatzen ingurumena errespetatzea, baina horiek adierazpen politikoak dira; interesgarriak, baina adierazpen politikoak azken batean, eta gertatzen dena da bien bitartean enpresek jarraitzen dutela euren lanekin. Ez dira zulaketak egiten hasi oraindik, baina debekurik ez, etorriko da hori ere.

Zeini dagokio honen gaineko eskumena?

Energiaren inguruko kontuak Espainiako Gobernuaren eskumen eskuliboak dira. Hala ere, nahiz eta energiaren inguruan eskumen osorik ez izan, hainbat autonomia erkidegotan debekatu dute teknika hau, ingurumenari eta lurralde antolamenduari dagozkion eskumenak baliatuta. Kantabriarrak izan ziren lehenengoak. Ingurumenari egiten zaizkion kalteak arrazoituta, urte hasieran debekatu zuten han *fracking*-a, eta Errioxak gauza bera egin zuen gero. Azkena, berriaz, Nafarroako Parlamentua izan da. Horren aurrean, Espainiako Gobernuak kargu hartu die esanez eurek dutela eskumen osoa eta lege horiek ez dutela baldintzatuko *fracking*-aren ibilbidea. Jaurlaritzako kasua, baina, bitxia da. Patxi Lopezen agintaldian, aurrekontu orokorretan 50 milioi euro bideratu ziren Hidrokarburoen Euskadiko Enpresa Araban lehenengo putzuak egiten hasi zedin. Gobernu aldaketarekin, hori gelditu egin da nolabait esatearren, ez dutelako diru gehiago jarri, baina Jaurlaritzak ez du adierazi *fracking*-a gelditze-ko asmo garbirik.

“Gipuzkoan bi eskaera aurkeztu dituzte ‘fracking’-a egiteko, eta baimenaren zain daude enpresak”

Euskararen erabilera sustatzeko tailerra antolatu du Elgoibarko Izarrak

2 eta 6 urte bitarteko gurasoei zuzendutako tailerra da

Kiribilka programaren barruan, euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzeko tailerra antolatu du Elgoibarko Izarrak, 2 eta 6 urte bitarteko haurren gurasoentzako. Tailer horretan hizkuntzekiko harremanaz hausnartuko dute, eta era berean, euskarari garrantzia handiagoa emateko gakoak landuko dituzte. Izan ere, jabetu edo ez, hiztunok egunero hartzen ditugun hizkuntza jarrerak eragin handia dute, eta are gehiago, gurasoek hartzen dituzten jarrerak ari bagara. Izan ere, euren seme-alaben eta kaleko gainerako ume eta gazteen eredu izango dira beti nagusiak. Erantzukizun horretaz ohartaraziko zaie tailerrean, besteak beste. Datu bat: adituek diote euskaldun guztiok lehen hitza beti euskaraz egingo bagenu, euskararen presentzia bi aldiz handiagoa litzatekeela kalean.

Nolanahi ere, euskararekiko jarrera baiko-rrak sustatu eta hizkuntzaren errealitatearen

eta etorkizunaren ikuspegi baikor bat azalera-tzea da tailerra sustatu dutenen helburua. Hala, euskara gozoki bat dela defendatuko dute tailerrean, eta gozatzeko gonbitea egingo die parte hartzaileei.

Azaroaren 9rako antolatu dute tailerra, eta, berez, euskaraz jakin bai, baina erabileran zer hobetua duten euskaldunei zuzendutakoa da. Bi ordu eta erdiko saioa izango da, goizez, baina ordutegia zehaztu gabe dago oraindik, izena ematen duten gurasoekin adostu nahi dutelako antolatzailleek. Tailerra doan izango da, eta parte hartzaileek hala eskatuz gero, umeentzako zaintza zerbitzua ere antolatuko dutela jakinarazi dute Elgoibarko Izarratik. Interesatuak hiru bide dituzte izena emateko: Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen lokalera joan, atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzi edota 943 741 626 telefono zenbakira deitu.

Olentzeroren etxera irteera antolatu dute Ludotekak eta Atxutxiamaikak

Aurreko urteetan izan duen es-timazioa ikusita, Olentzeroren etxe-rra irteera antolatu dute Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak eta Ludotekak, elkarlanean. Abenduaren 14an izango da irteera, eta azaroaren 4an, 16:00etan, zabalduko dute izena emateko epea eta azaroaren 12an itxi. 86 pertsonentzako lekua dago, baina antolatzaileek ohartarazi dute ez direla aurrez lekuak gordeko. Elgoibarko Izarrako eta ludotekako bazkideek 7 euro ordaindu behar dituzte izena emateko, eta bazkide ez direnek, 8 euro. Informazio gehiago: www.elgoibarkoizarra.com.

Eureka zientzia museora eta akuariumera irteera, azaroaren 23rako

Eureka zientzia museora eta Akuariumera irteera antolatu du Elgoibarko Izarrak azaroaren 23rako. Izena emateko epea azaroaren 4an zabalduko dute eta plazak mugatuak izango dira. Elgoibarko Izarrako bazkideek 7 euro ordaindu behar dute izena emateagatik eta bazkide ez direnek, 8 euro. Informazio gehiagorako: www.elgoibarkoizarra.com.

Hizkuntzen trukerako saioak, liburutegian

Mintzapraktika saioen bidez, hizkuntza bat edo beste doan ikasteko aukera dago Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegian. Horretarako, interesatuak email bat idatzi behar dute liburutegia@elgoibar.org helbidera, zehaztuz zein hizkuntzatan trebatu nahiko luketen, eta trukean, zein hizkuntza erakusteko gai diren. Liburutegitik jakinarazi dute pakistandar talde bat prest agertu dela ingelesezko mintzapraktikak eskaintzeko, trukean gatzelaniazkoak jasotzeko.

‘Katuska’ zartzuela eskainiko dute azaroaren 8an Herriko Antzokian

Masa Coral del Ensanche taldeak Pablo Sorozabal musikagile donostiarraren (1897-1988) *Katuska* zartzuela eskainiko du bihar zortzi, azaroaren 8an, Elgoibarko Herriko Antzokian. Luis A. Gamarra zuzendariaren agindutara jardungo dute Marta Ubietak, Jesus Lumbrerasek, Alberto Nuñezek eta Izaskun Kintanak.

Saioa 20:30ean hasiko da eta txartelak eskuratu nahi dituenak bi aukera ditu: egunetan bertan, Herriko Antzokiko lehiatilan edota www.kutxa.es Interneteko atariaren bidez.



‘Euskara jendea’, euskararen historiaren inguruko dokumentala, emititzen hasi dira ETB1en

Historialari, hizkuntzalari, arkeologo eta kulturgile ugari parte hartu dute dokumentalean

Eguaztean eman zuten *Euskara jendea*: gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza izeneko dokumental seriaren aurreneko alea, ETB1en [Sei atal dira guztira]. Bilboko Ibaizabal Mendebalde Kultur elkarteak eta Zenbat Gara elkarteak elkarlanean egindako ikus-entzunezko proiektua da *Euskara Jendea*, Xamarrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izen bereko liburuan oinarritutako lana. Bilboko Ibaizabal Mendebalde Kultur elkartea euskarazko ikus-entzunezkoak sortzeko sortu zuten, eta besteak beste, Ibaizabal telebista sortu zuten (*ibaizabaltb.com*). Zenbat Gara elkarteak, berriz, Bilboko Kafe Antzokia du erreferentzia gune nagusi, eta hamaika kultur jarduera sustatu eta egiten ditu, gehienak Bilbon bertan.

Euskaldunon hiztun komunitatearen historiaren inguruko ildo nagusiak azaltzen dituzte dokumentalean. Historiaurretik abiatuta gaur egunera arte, euskaldunok herri, kultura eta hizkuntza askorekin bizi izan gara geure hizkuntza galdu gabe, eta horixe kontatuko dute. Menderik mende, euskarak izan duen kanpoko hizkuntzen eragina aztertuko dute, eta euskarak gaur arte irauteko izan diren arrazoieta sakonduko dute.

Talde lana

Historia hori kontatzeko, dozenaka adituk parte hartu dute dokumentalean. Talde nagusia Xamarrek berak, Mikel Arredondok, Hibai Castrok, Adur Larreak, Lutxo Egiak, Ion Fernandezek eta Maria Uriartek osatzen dute, baina kolaboratzaile sare zabala dute inguruan, tartean itzal handiko historialari, hiz-

kuntzalari, arkeologo eta kulturgile ugari: Joseba Agirreazkuenaga (historialaria); Amaia Aire (irakaslea eta kulturgilea); Peter Bakker (hizkuntzalari); Belen Bengoetxea (arkeologoa); Jacques Blot (arkeologoa); Antonio Breschi (musikaria); Iñaki Camino (hizkuntzalari); William Anthony Douglass (antropologoa); Miren Egaña Goya (hizkuntzalari); Iraixe Esnaola (informatikaria eta .eus ekimenaren koordinatzailea); Diego Garate (arkeologoa); Joaquin Gorrotxategi (hizkuntzalari); Jose Angel Irigaray (kulturgilea eta idazlea); Neskuts Izagirre (antropologoa); Jurgi Kintana (historialaria); Joseba Lakarra (hizkuntzalari); Juan Jose Larrea (historialaria); Beñat Oihartzabal (hizkuntzalari). Lourdes Otaegi (literatura irakaslea); Jon Sarasua (bertsolaria eta idazlea); Elena Torregarai (historialaria) eta Mertxe Urteaga (arkeologoa.)

Elgoibarko Udalak osatu du 2014. urterako egutegia, herritarrek lehiaketara aukeztutako argazki onenekin

Arg.: Maite Loiola



50 herritarrek parte hartu dute Elgoibarko Udalak Ongarri argazkilari elkartearekin batera antolatutako argazki lehiaketan, eta orotara, 262 argazki aurkeztu dituzte, iaz baino 114

gehiago. Nabarmendutakoen artean, Asier Orbea BARRENEKO kazetariak egindako bat dago. Gainerako sari-tiak hauek dira: Eulogio Mancebo, Mikel Zengotita, Larraitx Zialtzeta,

Oier Ramos, Maite Loiola, Haizea Sanchez, Oihane Osoro, Eider Iriondo eta Aitor Rementeria

Egutegirako marrazki lehiaketa

LH5eko 82 ikaslek parte hartu dute Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak eta Ingurumen Sailak Herri Eskola eta Ikastolarekin elkarlanean antolatutako Marrazki lehiaketan, eta honako hauen lanak saritu dituzte: Ikastolatik: Unai Stockert, Nagore Guardia, Lore Iriondo, Maren Gorosabel, Nora Ortiz eta Arkaitz Maiora. Herri Eskolatik, Ana Delia Alonso, Leire Rodriguez, Enara Calleja, Aintzane Rodriguez, Asier Oñederra, eta Andrea Borrazas.

Sari banaketa ekitaldia abenduaren 18an izango da, 19:30ean, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



IMANOL GARAIZABAL

'Raid'-ean zaletua

Raid probetan zaletua da Imanol Garaizabal. *Raid-a* Zeelanda Berrian sortu zuten, baina berehala zabaldu zen mundu osora. Frantzian, esaterako, sekulako indarra dauka, eta egun 35.000 federatu baino gehiago daude. Hainbat kirolen nahasketa da raida: korrika, txirrindularitza, eskalada, orientazioa, tirolina, piraguismoa, slackline... Aspalditik zituen *raid*-ak begiz jota Imanolek, eta 2012an eman zuen izena estreinakoz. Aurten Euskal Ligako proba guztietan hartu du parte, eta emaitza onak lortu ditu, gainera. Zapatuan jokatu dute azken proba.

“Azken proba txukun egiten badugu, Euskal Liga irabazteko aukera daukagu”

Zer dira *raid* probak?

Kirol desberdinekin osatzen duten proba da raida. Euskal Herrian VidaRaid izeneko taldeak antolatzen ditu probak, eta horietan hartzen dugu parte guk. Kirol garrantzitsuenak korrika eta txirrindularitza dira hemengo probetan, baina nazioarteko raideetan kayak modalitateak ere pisu handia hartzen du. Eta hori guztia orientazioari lotuta joaten da. *Raid*-etan ez dira egoten bideak markatuta. Proba hasieran talde bakoitzari mapa bat ematen diote, eta han zehazten dira derrigorrez pasatu beharreko lekuak. Talde bakoitzak erabakitzen du nondik joan, eta horretarako estrategia oso garrantzitsua da. Bide guztiak desberdinak dira, eta bide motzena ez da beti onena izaten, gogorragoa izan daitekeelako.

Nola heldu zinen *raid*-en mundura?

Betidanik ibili izan naiz mendian, eta azken urteetan mendi lasterketan ere hartu izan dut parte, baina aspalditik nituen raidak begiz jota. Iaz estreinakoz antolatu zuten Euskal Herriko liga, eta anaiarekin batera eman nuen izena. Izugarri gustatu zitzaigun, eta denboraldiko proba guztiak

egin nituen. Lehenengoak anaiarekin, eta gero Iker Leonardo, Jon Ulibarri eta Iñigo Larizekin. Aurtengo denboraldia Jon Ulibarriarekin hasi nuen, baina gero Aaron Garmendia laudiotarrarekin osatu nuen bikotea, eta egia esanda, oso ondo konpontzen gara. Giro ona daukagu gure artean, eta fisikoki ere antzera gaudenez, ondo moldatzen gara.

Probak taldeka izaten dira. Zer da garrantzitsuenaren taldeak ondo funtzionatzeko?

Euskal Herriko probak binaka izaten dira, Espainiakoak hirunaka eta nazioartekoak launaka, eta gainera mixtoak izan behar dira. Talde bezala funtzionatzea da garrantzitsuenaren, eta taldekideen arteko konpenetrazioa ezinbestekoa da. Normalean orientazioaren ardura batek hartzen du, eta hari jarraitzea ezinbestekoa da. Batzuetan ez du asmatuko, baina ezin zaio ezer leporatu, kale egin izanagatik okerren bera egoten delako, normalean. Bestalde, fisikoki makalena denari ere lagundu ahal zaio. Korrika zailagoa da, baina BTT proban posible da bizikletak lotu eta batak bestearekin tira egitea.

Zazpi orduko probak izaten dira. Nola prestatzen dituzue saioak?

Raidetan prestaketa fisikoa desberdinetako jendeak hartu dezake parte, probaren gogortasuna norberak neurtu dezakeelako. Mapan kontrol puntu guztiak agertzen dira, baina talde bakoitzak erabakitzen du denetatik pasatu nahi duen ala ez. Irabaztera doanari komeni zaio ahalik eta puntu gehien egitea, baina bestela, norberaren fisikoa eta denboraren arabera moldatu daiteke proba. Ni saiatzen naiz astean hiru edo lau aldiz entrenatzen, baina daukan denboraren arabera entrenatzen da jendea.

Fisikoa, orientazioa eta estrategia aipatu dituzu. Zer da garrantzitsuenaren?

Hiruren konbinazioa behar da. Fisikoki gaizki bazaude, ez duzu ondo pentsatzen eta orientazioan kale egiten duzu. Eta estrategia ere oso garrantzitsua da, hau da, erabakiak hartzea: ia baliza guztien bila joango zaren edo ez, zein bide hartuko dituzun...

Zapatuan duzue azken proba. Irabaztera?

Bai, gu irabaztera irtengo gara. Aurten emaitza onak lortu ditugu, eta azken proba txukun egiten badugu, Euskal Liga erabazteko aukera daukagu.

Esku bakarrarekin munduko marka ontzeko ahalegina egingo du Bihurrik

Zapatuan izango da proba, Bilbon

Ernesto Ezpelta *Bihurri* aizkolaria-riak erronka berri bati egingo dio aurre zapatuan, Bilboko La Casilla pabiloian. Esku bakarrarekin hiru metro eta 50 zentimetroko diametroko enborra mozten saiatuko da Mendaroko aizkolaria, 2012an Munitibarren ezarri zuen munduko marka ontzeko ahaleginean. Esku bakarrarekin munduko marka ontzeko egingo duen bosgarren ahalegina izango da honakoa Bihurrirentzat. Azkeneko errekorrean 3.850 aizkorakada eta ia bi orduko lanaren ostean lortu zuen enborra bitan zatitzea. Marka hori hobetzen saiatuko da zapatuan.

Bilbon egingo duen errekor ahalegina 10:00etan hasiko da, eta ekitaldi horretan jasotako dirua gaixotasun arraroak dituzten umeentzat izango da.



Angel Ibarluzeak irabazi du Euskadiko Hiru Txirlo txapelketako lehen jaurtialdia



Urriaren 19an hasi zen Euskadiko Hiru Txirlo txapelketa Soraluzeko San Andres bolatokian. 63 bolarik hartu zuten parte lehen proba horretan, eta Aiastiako Angel Ibarluzea izan zen onena. Elgoibartarrak sei txirlo bota zituen, Iruzubietako Juan Txurrukak beste, eta berdinketa hausteko beste jaurtialdi bat egin behar izan zuten. Xabier Loiola aiastiarrek hirugarren egin zuen, bost txirlorakin. Bigarren jaurtialdia azaroaren 9an jokatuko dute, Bolibarren.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi **3** – Baskonia **1** (3. maila)

Ilintxa **4** – Elgoibar **0** (Erreg.)

Berriotxoa **1** – Elgoibar **0** (Neskak)

Elgoibar **2** – Urola **3** (Jub. A.)

Anaitasuna **0** – Elgoibar **1** (Kad. A)

Burumendi **3** – Elgoibar **1** (Kad. B)

Elgoibar **8** – Lagun Onak **0** (Ohorezko inf.)

Anaitasuna **1** – Elgoibar **6** (Inf. txiki)

Lagun Onak **3** – Elgoibar **4** (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. **5** – Zierbena **5** (2B)

Zarauz **2** – King-Kong Elg. **4** (Jub.)

SASKIBALOIA

Dolphins **42** – Viento sur Elg. **53**

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. **22** – Romo **20** (Sen. mut.)

Aloña Mendi **32** – Gabaz Elg. **21** (Sen. mut.)

Gabaz Elg. **31** – Usurbil **24** (Sen. mut.)

Amenabar B **13** – Beristain Elg. **25** (Jub. mut.)

Zuazo **31** – Astigarraga Elg. **21** (Jub. neska)

Zuazo **24** – Tecnifuelle Elg. **19** (Kad. neska)

Amenabar **14** – Pneumax Elg. **32** (Kad. mut.)

Usurbil **40** – Txarriduna Elg. **32** (Kad. mut.)

Murgil Elg. **19** – Leizaran **12** (Kad. neska)

Pulpo **35** – Bankoa Elg. **18** (Inf. mut.)

Pulpo **30** – Cometel Elg. **22** (Inf. neska)

Ikus Elg. **11** – Aterpe Elg. **15** (Inf. neska)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Barixakua, 1

10:00 Elgoibar – Soraluze (Kad B)

12:00 Elgoibar – Urola (Kad A)

16:30 Elgoibar – Urola (Erreg.)

Domeka, 3

12:00 Elgoibar – Arratia (Kad. A)

16:30 Haundi – Sodupe (3. maila)

SASKIBALOIA (Kiroldegian)

Barixakua, 1

12:15 Viento Sur Elg. – Zarauz

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 2

10:30 Txarriduna Elg. – La Salle (Kad. mut.)

16:00 Pneumax Elg. – Ordizia (Kad. mut.)

17:45 Beristain Elg. – Bergara (Jub. mut.)

19:30 Lauko Elg. – Camargo (Sen. neska)

Domeka, 3

10:30 Gabaz Elg. – Leizaran (Sen. mut.)

PILOTA (KASTOLAN)

Eguena, 31

20:00 Lagunak – Usurbil (Pala. 2. maila nag.)

20:30 Lagunak – Azkoiti (Pala. 2. maila nag.)

21:15 Lagunak – Aurrera (Eskuz. 1. maila nag.)

Zapatua, 2

12:00 Lagunak – Zumaia (Eskuz. 2. maila kad.)

LANA

ESKAERA

- Frantsesa, latina, euskera eta gaztelarako klaseak ematen ditut.
- ☎ **617 114 185**
- Emakumea lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest.
- ☎ **606 354 982**
- Emakume arduratsuak haurrak zein nagusiak zainduko lituzke, orduka. Garbiketara lanak ere egiten ditut.
- ☎ **625 895 460**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, zein garbiketara lanak egiteko.
- ☎ **697 702 158**
- Gizonezkoa lanerako prest: Adinekoak zaintzeko, sukalde laguntzaile lanerako...
- ☎ **690 861 846**
- Neska eskaintzen da garbiketara egin edo adinekoak zaintzeko.
- ☎ **616 457 254**
- Emakumea lanerako prest. Fisioterapia eta terapia okupazional ikasketak ditut. Geriatrian esperientzia. Euskara ikasten ari naiz.
- ☎ **610 949 526**

- Unibertsitateko ikasleak klase partikularrak ematen ditu. Taldeka edo banaka. DBH eta LHko ikasleentzat.
- ☎ **657 486 811**
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditu. LH eta DBH1 eta 2 mailatan.
- ☎ **634 588 605**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Erreferentzia onak. Geriatria ikasketak. Umeak zaintzeko ere prest.
- ☎ **669 311 385**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Erreferentzia onak. Geriatria ikasketak. Umeak zaintzeko ere prest.
- ☎ **632 253 170**
- Neska arduratsua lanerako prest. Interna edo orduka. Esperientziaduna.
- ☎ **636 581 194**
- Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Egun erdiz zein orduka.
- ☎ **680 121 252**
- Emakumea lan bila: etxeko lanak egin edo nagusiak zainduko nituzke. Interna edo orduka.
- ☎ **648 815 264**
- Emakumea eskaintzen da lanerako: adinekoak zaintzen, garbiketara egiten edo tabernan egingo nuke lan. ☎ **690 199 860**

ETXEBIZITZAK

- Etxea alokagai Deban. Bi logela altzariekin, bero-gailu zentrala logela guztietan. Hilabeteka alokatu daiteke. ☎ **669 339 529 (16:00etatik aurrera)**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
- ☎ **650 809 190**
- Etxea alokatzen dut Elgoibarren. ☎ **650 809 190**

LOKALAK

- Gazteentzako lokala alokagai, Urazandin. Baimen guztiak Udai ordenantzara egokituta, alarma, bainugela, dutxa. Bi gune ditu lokalak.
- ☎ **610 893 332 / 943 531 407**

KINTOAK ETA OSPAKIZUNAK

- Artetxe Behean bizi direnen eta bizi izan direnen afaria azaroaren 16an, Sigma jatetxean. Lehen dealdia, 19:00etan Viento Sur gastrotekan, eta bigarrena, 20:00etan Jai Alai tabernan. Interesatuak 45 euro sartu behar dituzte azaroaren 8rako, Kutxabank-eko kontu korronte honetan: **2095 5036 52 1068686269**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



- Igogailua aldatu beharra daukagula erabaki dugu etxe-jabeen batzordean. Izan ere, azkeneko azterketan igogailu berria jartzea orain daukagun hau konpontzea baino merkeago irtengo zitzagula esan zigun teknikoak. Gertatzen dena da, baina, azpiko lokal-tako jabeak ez direla inoiz batzarretara agertzen, deialdia bidaltzen diegun arren. Igogailua erabili ez arren, lokal horietakoak derrigorputa al daude igogailu berria jartzeak suposatzen duen gastuak ordaintzera?

Legez, lokal horietako jabeak ere behartuta daude igogailuaren instalazio gastuak ordaintzera. Parte-hartze kuotaren arabera dagokien zenbatekoa ordaindu beharko lukete. Salbuespenak badaude, baina. Gerta daiteke eskritoretan edo estatutuetan jasota egotea lokal-jabe horiek ez dutela zertan ordaindu edo gerta daiteke etxe-jabeen batzordeak ahobatez onartu izana horiek ez dutela ezer ordaindu beharrik.

Gomendioa: lokal komertzialen jabeei batzarrerako deialdia bidali behar zaie. Deialdiaren berri ematea funtsezko da, gastu horiek ordaindu beharra ez duela pentsatzen duenak behar diren tramiteak hasi ditzan.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Unai**, atzo 2 urte egin zenituelako. Aitatxo, amatxo eta Asierren partez.



• Zorionak, **Ayelen**, 6 urte egin dituzulako. Gurasoen, aiton-amonen eta osabaren partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Janire**, urriaren 27an 8 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Jakes**, gaur 6 urte egin dituzulako. Muxu potoloak, bereziki, Elene, Markel eta Jonen partez.



• Zorionak, **Ibon**, astelehenean bi urte bete zenituelako. Patxo asko gure bihurriari etxekoen partez.



• Zorionak, **Unai**, astelehenean 9 urte betetzen dituzulako. Muxu potolo bat familiakoen, eta bereziki, Irene eta Claudiaren partez.



• Zorionak, **Nerea**, asteazkenean 8 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Mike-len partez.



• Zorionak, **Aitana**, etxeko guztien partez. Muxu potolo bat.



• Gure **bi txapeldunek** 7 urte bete dituzte! Zorionak, eta patxo pila bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **potxolas**, zuen zortzigarren eta hamaikagarren urtebetetzear. Etxekoen partez, mila kilo muxu.



Zoriondu ezazu **BARRENEN!**


PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **4€** - Argazki bikoitza **6€** - Hirukoitza **8€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **12€**

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK


Erretratu bakarreko agurra **3€** - Argazki bikoitza **5€** - Hirukoitza **7€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **10€**

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEN**ko bulegora, **12:00ak** baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Abenduaren 14an
Olentzeroren etxerako familia irteera. Izenematea azaroaren 4an irekiko da, 16:00etan. Prezioa 7€.

Azaroaren 1ean Gaztelekua itxita egongo da. Asteburuan ohiko ordutegian irekiko dugu.



31 eguena

Dantza ikastaroa

19:30 Kizomba

Kike eta Pepa irakasleek eskainiko dute dantza klasea, Gabaz dantzalekuan.

3 domeka

Aisialdia

12:00 Irratizaleen topaketa

Deba Bailarako irratizaleen topaketa egingo dute, Kultur Etxean.

6 eguaztena

Ikastaroa

17:00 Erresilentzia eta gaixotasuna

Defibel elkarteak antolatuta, Kultur Etxean.

Hitzaldia

19:00 Auzokonposta

Auzokonpostari buruzko hitzaldia, Kultur Etxean. Antolatzailea: Elgoibar Zero Zabor.

Hitzaldia

19:00 'Gaztemapping'

Gazteen aisialdi ohituren emaitzak azalduko dituzte. Kultur Etxean.

7 eguena

Hitzaldia

19:00 'Fracking': apustu

arriskutsua

Okil Beltzak taldeak antolatuta, Fracking-ari buruzko hitzaldia, Kultur Etxean.

Aisialdia

20:30 Bakarizketa

El Peli. Lanbroa kafetegian.

8 barixakua

Musika

20:30 'Katuska'

Masa Coral del Ensanche taldeak Katuska zartzueta taularatuko du, Herriko Antzokian.

ZINEA

«Tierra prometida»

Ongarri zinekluba

31, eguena: 21:30

1, barixakua: 19:00/22:15



«Tierra prometida» Zuzendaria: Gus Van Sant. AEB, 2013. Iraupena: 107 min. Generoa: Drama. Aktoreak: Matt Damon, John Krasinski, Frances McDormand. Steve Butler saltzaileak ibilbide luzea egin du bere landetxetik egun lan egiten duen enpresara iritsi arte. McKinley herrira iristean norabidez aldatuko zaio bizimodua. Krisiak gogor jo du McKinleyn eta zailtasun handiak aurkituko ditu. Bisita laburra izan behar zena, uste baino gehiago luzatuko zaio.

«Las brujas de Zugarramurdi»

2, zapatua: 19:00/22:15

3, domeka: 19:00

4, astelehena: 21:30



«Las brujas de Zugarramurdi» Zuzendaria: Alex de la Iglesia. Espainia, 2013. 119 min. Komedia beltza. Aktoreak: Hugo Silva, Mario Casas, Carmen Maura, Terele Pávez. Gizon-talde batek urrea erosten duten denda horietako bat atrakatzen du. Urrezko 25.000 eraztun ostu dituzte, baina ez daukate ihes egiteko autorik. Taxi bat geratuko dute, baina, nora joan? Maroko? Frantzia? ihesaldian Euskal Herriko basoetan barneratuko dira, akelarreen eta sorgiñen lurraldean. Giza haragiz elikatzen diren sorgiñen kobazuloan amaituko dute.

«Zipi eta Zape»

3, domeka: 16:30

«Amor de juventud»

Ongarri zinekluba

7, eguena: 21:30

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

Gauetz

22:00 - 9:00

31	Ibañez	Yudego
1	Garitaonandia	Garitaonandia
2	Etxeberria	Etxeberria
3	Etxeberria	Etxeberria
4	Fernandez	Barrenetxea
5	Yudego	Yudego
6	Zabaleta	Garitaonandia
7	Barrenetxea	Barrenetxea

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

Jose Antonio ileapaindegia

Hasierako ileapaindegia nire aitak zabaldu zuen, 70eko hamarkadan. 1992an hasi nintzen ni berarekin lanean, eta 2000. urtean, aita jubilatuz zenean, Oihana Zubiaurre hasi zen nirekin lanean. Orduetik biot dihardugu lanean. 40 urte baino gehiago pasatu dira ileapaindegia zabaldu zenetik.

► Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Gehien eskatzen dizkiguten zerbitzuak ondorengoak dira: ile mozketak, bizarra konpontzea, ile zuriak estaltzeko tinteak... Gizonezkoentzako ileapaindegia da gurea, eta haietazko zerbitzuak eskaintzen ditugu.

► Gizonezkoek gero eta gehiago zaintzen dute estetika, oro har. Elgoibarren ere hala al da?

Herri txikietako gizonezkoak kontserbadoreagoak dira, baina gazteak hasi dira ile mozketara modernoagoak eskatzen.

► Zer da zure bezeroek gehien eskatzen dutena? Noren antza izan nahi dute?

Gazteek gandorrak edo gandor-erdiak eskatzen dituzte, bereziki. Umeek ere antzekoa eskatzen dute; gandorrak edo melenatxoak, begiak estaltzerainoko kopta-ilearekin. Gazteek ez dute esaten noren antza eduki nahi duten, baina



umeek sari esaten dute Neymar, Justi Bieber edo Griezmannen itxura hartu nahi dutela.

► Zure ileapaindegitik zer nabarmenduko zenuke?

Gure ileapaindegian berebiziko garrantzia ematen diogu higieneari. Zerbitzu bakoitzeko toaila eta bizar-xafla

bana ematen dizkiogu bezeroari. Higiene araudia betetzen dugu. Ilea-paindegi batera doan bezeroak higienaren gaia kontuan hartu beharko luke. Mozteko tresnak erabiltzen direnean infekzioak pertsona batetik bestera pasatu daitezke mozketara txikienarekin. Hori dela eta, gai hau kontu handiz zaintzen dugu.

Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO

Ilea zaintzeko Kerastase eta L'oreal tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Errosario kalea, 30
Elgoibar
Tele.: 943 741 492



- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Ilea mozteko, behin erabili eta botatzeko tresnak
- Legeak ezarritako higiene neurriak



www.peluqueriajoseantonio.com

zergatik ez?

EUSKARAREN ERABILERA SOZIALA
BULTZATZEKO TAILERRA

Zer harreman duzu inguruan dituzun hizkuntzekin? Eta euskararekin?
Nola eragiten du zure jokaerak hizkuntza horien garapen eta erabileran?



SAIOAREN HELBURUAK

- ◆ Euskararen erabilera sozialaren inguruko hausnarketa gune bat sortzea
- ◆ Guk, hiztun gisa, uneoro aukeratzen ditugun hizkuntza jarrerek duten eraginaz hausnartzea
- ◆ Euskararekiko jarrera baikorrak sustatzea
- ◆ Euskararen errealitatearen eta etorkizunaren ikuspegi baikorra azaleratzea

ZER IKUSI, HURA EGIN

- ◆ Norentzat: 2-6 urte bitarteko umeen gurasoentzako.
- ◆ Noiz: Azaroak 9 larunbata (doan).
- ◆ Non: Kultur etxean.
- ◆ Informazio gehiago: Elgoibarko Izarran
(943 741 626 edo atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com).
- ◆ Izen-ematea: Elgoibarko Izarran, Ubitarte 4 behea.
- ◆ Eskeraren bat egongo balitz zaintza zerbitzua eskainiko da.